

3. ERANSKINA

AUTOEBALUAZIO KOMPETENTZIALA

K1. PLANGINTZA ESTRATEGIKOA. Ikastetxearen kultura eta ingurua aintzat hartu, plangintza estrategikoa gidatu, garatu, gainbegiratu eta ebaluatu.

- K1.1. Ikastetxeko lerro estrategikoak eta helburuak definitzean komunitateak parte-hartzen du: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Zuzendaritza- proiektua, Plan Estrategikoa, IUP...?
- K1.2. Helburu-estrategikoak zehaztean ikastetxeko kultura eta testuingurua kontuan hartzen da?
- K1.3. Hezkuntza komunitatearen eta gainontzeko eragileen beharrak, iritziak... jaso, analizatu eta estrategian txertatzen dira?
- K1.4. Zehaztutako estrategia hedatu, komunikatu, berrikusi eta eguneratzen da?

K2. ERALDAKETARAKO ANTOLAKETA. Eraldaketarako antolaketa zehaztu eta ezarri inklusioaren printzipioetan oinarrituta.

- K2.1. Ikastetxea antolatzeko ereduak finkatuta dago (inklusioa oinarri)?
- K2.2. Ikastetxeak badu agertoki edota behar berrien aurrean egokitzeko malgutasuna?
- K2.3. Ikasleei hezkuntza-erantzun hobereana emateko, baliabideen antolaketa eta esleipenerako irizpideak argi daude?
- K2.4. Lankidetzarako, talde-lanerako eta praktikei buruzko hausnarketarako espazioak eta mekanismo egokiak

K3. LIDERGO PEDAGOGIKOA. Zehaztutako helburuak kontuan hartuz ikas-irakaskuntza prozesuen kalitatea eta haien ebaluazioa bideratu.

- K3.1. Ikasleen ikas-prozesuen planifikazioa, hedapena, ebaluazioa eta etengabeko egokitzapenerako mekanismoak daude?
- K3.2. Ikasleen irteera profila kontuan hartuta, kompetentzien garapeneraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema eraginkorrek ditugu?
- K3.3. Prozesu pedagogikoak hobetzeko irakasleei laguntza ematen zaie?
- K3.4. Ikas-prozesuetan ardatz curricularrak integratzen dira? (berdintasuna, jasangarritasuna ...)

K4. LIDERGO PARTEKATUA. Ikastetxeko pertsonen inplikazioa eta pertenenzia sustatu.

- K4.1. Pertsonen (irakasleen, gainontzeko hezitzaileen...) inplikazioa eta pertenenzia sentimendua garatzeko mekanismoak daude?
- K4.2. Ezarrita daude moduak pertsonak ezagutzeko eta euren gaitasunen, zaletasunen, talentuaren... arabera erantzukizunak banatzeko?
- K4.3. Komunitatearen arteko konfiantzazko harremanak sortzeko eta ikastetxeko irakasleak ahalduntzeko moduan ezarrita daude?
- K4.4. Zehaztuta daude ezagutzaren transmisioa egiteko eta pertsonak elkarrekin ikasteko metodoak? (irakasleen artean, proiektuen artean, zuzendaritza taldeen aldaketetan...).

K5. IKASLE GUZTIEN ARRAKASTA. Inklusio, ekitatea eta justizia-sozialerako hezkuntza lidergoa garatu, ikasle guztien arrakasta bermatuko duten baldintzak bultzatu.

- K5.1. Ikasleekiko espektatiba handiak oinarri, ikasle bakoitzari hezkuntza-erantzun egokiena emateko neurriak zehaztuta daude?
- K5.2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak (inklusioaren printzipioen arabera) ebaluatu eta dokumentuetan islatzen dira? (curriculum proiektua, programazio didaktikoak, tutoretza plana, aniztasunaren trataera plana, elkarbizitza plana...)
- K5.3. Ikasleen inklusiorako dinamikak eta prozesuak eguneratu eta gainbegiratzen dira?
- K5.4. Ikastetxeko ebaluazio-prozesuetan inklusioa kontuan hartzen dela bermatzen da?

K6. PRINTZIBIO ETIKOAK. Printzipio etikoen arabera ereduagarritasunez jardun.

- K6.1. Ikastetxean hezkuntza-komunitate osoaren ongizatea bilatzen da?
- K6.2. Ereduagarritasunez jokaten da eta erabakiak hartzen direnean gardentasuna dago?
- K6.3. Harremanetan inbertitzen da eta eguneroko jarduna besteekiko errespetuan oinarritzen da?
- K6.4. Ikastetxeko kode-etikoa zehaztuta dago?

K7. ELKARBIZITZA POSITIBOA. Elkarbizitza positiboa oinarri hartuta ikastetxea lideratu.

- K7.1.** Ikastetxeko bizikidetzaren helburuak definituta daude eta dokumentu estrategikoetan islatuta?
- K7.2.** Harreman positiboetan oinarritutako bizikidetzaren klima eta kultura lortzeko moduak zehaztuta daude?
- K7.3.** Pertinentzia sentimendua, errespetua, lankidetzaren eta etengabeko komunikazioan oinarritutako eskola-giroa lortzeko bideak ezarri dira?
- K7.4.** Ikastetxeko gatazkak ikuspegi eraikitzailetik bideratzen dira? (bitartekotza, adiskidetzaren eta erreparazioa)

K8. ELKARREKIN IKASTEN DUEN KOMUNITATEA. Berrikuntzak bultzatuz, elkarrekin ikasten duen komunitateko kideen garapen pertsonala, soziala eta profesionalaren kultura sustatu.

- K8.1.** Eskola-komunitaterako prestakuntza plana zehaztuta dago? Bertan elkarrekin ikasteko moduak txertatu dira?
- K8.2.** Ikastetxean Berrikuntza eta ikerketa pedagogikoekin lotutako etengabeko hausnarketa bultzatzen da eta zenbait praktika inplementatzen dira?
- K8.3.** Irakasle-taldearen parte-hartzea orientatu eta bultzatzeko moduak ezarrita daude?
- K8.4.** Ikaskuntza kolaboratiboan irakaskuntza-praktika sustatzen da?

K9. PARTE-HARTZE DEMOKRATIKOA. Parte-hartze demokratikoa bultzatu eta inplementatu.

- K9.1.** Ikasleak euren ikaskuntza prozesuaren protagonista izan daitezkeen bideak ahalbidetzen dira?
- K9.2.** Ikastetxeetako egituretan eskola-komunitateko kideen parte-hartzea sustatzen da?
- K9.3.** Ikastetxeko komunikazio bideak eraginkorrak dira, komunikazio-plana zehaztuta dago?
- K9.4.** Egoera zaurgarrian egon daitezkeen familiei laguntzeko bitartekoak ezarrita daude?

K10. KANPO HARREMANAK. Beste ikastetxeekin, gizarte-ingurunearekin eta administrazioarekin lankidetzan aritu.

- K10.1.** Ba al dago lankidetzarik beste ikastetxeekin, sareekin, auzo/herri/hiriko elkarte, eragileekin...?
- K10.2.** Gure ikastetxeko ikasleen ibilbideko ikastetxeekin koordinatzen gara, eta harreman horiek sendoak dira? (Trantsizio plana zehaztuta dago)
- K10.3.** Gizarte-ingurunearen erakunde, elkarte, giza-eragile, pertsonekin... ezagutza partekatu eta lankidetzan aritzen da ikastetxea?
- K10.4.** Lankidetzaren dago ikastetxea administrazioaren artean?